

OSOGUNEKO ERAKASKERA
1996-97. IKASURTEA.

① ELHEKETA: ASTE HUNTAKO SOLAS-BIDEA

1. Zer da uxera. edo giltzaina?
2. Zer dira mozkinak?
3. Zer erran nahi du errantzun?

II

DEBRUA ETA UXERA

Mende hartan debruak lur huntako bidetan gaindi zabiltzan. Aipatzen dautzuetana ez zen Ebanjelioko Debrua bainoagoa, bainan bere lanari jarraituzen zitzaion, haragi girixtino bil eta bil, ifernuko pentzen betetzeko.

Egun batez delako debru harek uxer bat kausitu zuen bere bidean: jaun hau, karpeta besazpian bazoan bere egitekoetarat.

—Errazu-ta, elgarrekin egiten baginu bide? erran zion uxerak debruari.

Hitz zuhur batek baitio "lagun elekari, bideko zamari", debruak, karent, ihardetsi zion:

—Berdin bai! Zertako ez?

Ixtant baten buruan iragan ziren etxe baten aintzinetik. Haur zikintsu bat ari zen eskalapoin ukaldjika putxu bateko lohiaren talastatzen, amak kexu-kexua erasiatzen zuelarik:

—Haugi hunat, urkagei itsusia ez bertzea: debrua ekar-araziko diat berekin ereman hezan!

Uxerak debruaren alderat itzuliz:

—Errazu, Galtxagorri! Uste dut ihizi bat badela hor zuretzat.

—Ez, adixkidea, erantzun zion debruak: ez duk bihotzaren erditik errana...

Urruntxago bertze etxe bat bazen. Senar emazteak mokoka ari ziren. Gizonak bere esposa lasterkatzen zuen, mato bat eskuan, oihu-patarraka ziolarik:

—Kuia-lili karatsa, habil, habil hire amaren ganat! Eta debruak hara-madala bixtatik, entzuten banu segurik!

Uxera berriz ere itzuli zen debruaren ganat erranez:

Aldi huntan haatik baduzu nori lot? Aditu duzu?

—Aditu diat, ba; bainan ez zuian bihotzaren erditik errana.

Azkenean etxe miserable batetarat heldu ziren: han uxerak bordari baten ganik behar zituen eskuratu legearen izenean giza-gaizoak bere nausiarri zor ziozkan zenbait sos. Urteko mozkinak biziki meheak izan baitziren, gose hamikatuak ziren familia hortan.

Uxera doi-doia atean agertu orduko, bordariak lurrerat tu eginik erran zuen deplauki:

—Debruak haramala!

—Oraikoa uste diat bihotzaren erditik errana den, egin zuen debruak. Uxeraz jabeturik lau ixtapez ereman zuen ifernu-ate handirat.

IMPERATIFES

Zuk Errazue = dites-le

Zuk Errazue = dites-le

JAUGIN = venir

Haugi = viens

Zauri = venez (sing)

Jaugin tres usite' en Basse Navarre

{Zaurizte = } venez (pluriel)
{Zaurte = }

II ADITZ IKASKUNTZA

- 31. Dautzuetana 32. Bazoan
 - 33. Baginu 34. Zion, ziozkan
- Orhoitmenetako: Errazue, diat, duk, haugi.

31. UKAN. Conj. a dble cplt. O. Sing. C.I. sing.

Indic. Present - Zueri = a vous autres.

Nik dauzuet = je vous l'ai

Harek dauzue = il vous l'a

Guk dauzuegu = nous vous l'avons

Heiek dauzute = ils vous l'ont

Zuri = a vous. OS - C.I.S = dauzut, dauzu

dauzugu, dauzute = je vous l'ai etc.

32. JOAN. Aller = Indicatif Imparfait.

Ni mindoan = j'allais

Hi hindoan = tu allais

Zu zinoatzin = vous alliez

Hura zoan =

Gue ginoatzin =

Zuek zinoatzen =

Heiek zoatzin = ils allaient

Indic. Present = moa, hoo, zoatzi, doa

goatzi; zoatze, doatzi = je vais... etc.

33. UKAN. Suppositif eventuel 3^oe forme.

Nik Banu = si je l'avais, Banitu (si je les avais)

Hik Bahu =

Bahitu

Zuk Bazinu =

Bazinitu

Harek Bahu =

Balitu

Guk Baginu =

Baginitu

Zuek Bazinute =

Bazinituzte

Heiek Balute = etc.

Balituzte etc.

Eventualite' prochaine (a present)